



Gorka Zozaia - @zotz_
Kimikaria

Zarama harri bihurtzen denean

Esana zigun Joseba Sarrionandiak «Zaramalogia» olerkian, nola zarama ontzietan depositatzen den gure soziologia material eta sakona. Nola lerroz lerro jarritako zazpi zarama hon-tzi horietan antropologia artxiboan baino humanitateari buruzko datu gehiago zeuden. Zibilizazioaren poetika hura, bete-betean agertzen zaigu aste hauetan zehar AWG (Antropozenoaren Lantaldea) delakoaren lanean. Pasa den azaroaren 17an bildu zirenetik, 30 egun dituzte geologo, klimatologo eta paleontologo hauek Holozenoaren hurrengo izango litzatekeen garai geologikoaren arrastorik nabarmentenak Lurreko zein tokitan aurkitzen diren erabakitzeke. Antropozenoa da garai hori, eta gizakion jarduerak geruza estratigrafikoan utzitako arrastoa du abiapuntu, hots, zarama harri bilakatu denekoa.

«Zarama» esanda, literalki, eguratsaren bidez noranahi zabaldutako material artifizialez ari gara, prozesu anitzen albo produktu gisa. Karbono dioxidoaz beraz gain, gasolinaren errekuntzaren hondarrak, mikroplastikoak edo teknofosilak aurki daitezke harri bihurtuta, baina markatzaile nagusia plutonio-239a da, Nagasakin jaurti zen bonbaren eta proba atomiko gehienen albo produktua. Berau, bestelako erradioisotopoe-kin batera, lurretan, itsas hondoetan, tutuetan aurkitzen ahal da, edo harri-patuta izotzetan, edo zuhaitzen enboretan. Eguratsaren bidez, noranahi heldu da hamarkadetan bota izan dugun zarama, baina soilik leku batzuetan pilatu da hoberen bere ikerketa gaur, eta batez ere etorkizun luze batean, posiblea eta esanguratsua egiteko moduan. Hainbat hautagai bazter-

tu ostean, bederatzi lekuren artean aukera egin behar dute AWGko kideok, eta bidenabar, garai berriaren eskala adostu.

Euskalduna da lantalde honetako kide bat, Alex Cearreta, eta berton dugu iraunkortasun eskasagatik baztertu zen leku bat; Tunelboka (Getxo). Pasa den urtean NAIZek elkarritzketatu egin zuen Cearreta *in situ*, eta informazio gehigarri ugari topatuko duzue bertan, baita lerrootara gaia duela ia zazpi urte ekarri nuenekoan ere: “Eta orain, Antropozenoa!”. Orduan salatzen nuen nahiko ariketa antropozentrikoa zela gizakiok etapa geologiko berri bat zabaltzeko gai izan garela aitortzea –klima aldaketa antropogenikoarekin sintonian–, bai-

na zalantzarik ez da zarama alimaleko kantitateetan sortu izan dugula eta, dagoeneko, harri ere egin zaigula. Are, giza eraikuntza handiena izan daitekeena zabortegi bat da, New Yorken, 150 milioi tona zarama 70 metroko altueran eta 8 milioi metro koadrotan biltzen dituen. 1948an zabaldutako zen, eta 2002an itxi, dorre bikien hondarrek. Fresh Kills bere izena, ezin poetikoagoa. •

Igarri metalezko ahoen mezua: ugarian eta naharoan akabatuko gara, dietak egin beharko ditugu alde honetakoek, bestaldekoak gosez, egarritz eta euliz hiltzen diren bitartean.

Zaramalogia, J. Sarrionandia



Tunelboka, antropozenoa ikertzeko leku egokia. Gorka CASTILLO